

## **JUAN DE LA CIERVA 2018 DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA: "Incorporación" modalitatea**

### ***Diru laguntzen ezaugarriak:***

MINECOk 225 laguntzatarako deialdia egin du doktore gazteen lan kontratazioa suspertzeko, doktoregoaren ondoko lehenengo prestakuntza fasean berenganatutako gaitasunak finkatze aldera. Lau plaza gordetzen dira %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko.

### ***Diru laguntzen ezaugarriak:***

Kontratuek **hiru urteko** iraupena izango dute, gehienez. UPV/EHUn hasiko diren onuradunek 25.000 euro gordin jasoko dituzte urtean.

Horrez gainera, 6.000 euroko laguntza gehigarria emango zaio, norberaren ikerketa jarduerekin zuzenean loturiko gastuak ordaintzeko.

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

- a. Sarbide orokorrean parte hartzeko, erakutsi beharko da doktore titulua 2014/01/01etik 2016/12/31ra bitartean erdietsi dela. Kontuan hartuko da lehen tesiaren defentsa ekitaldiaren eta onarpenaren data.
- b. Desgaitasuna duten pertsonen txandarako, erakutsi beharko da doktore titulua 2012/01/01etik 2016/12/31ra bitartean lortu dela.
- c. UPV/EHUn sartu nahi duten onuradunek, doktorego aurreko prestakuntza bertan egin ondoren, egiaztatu beharko dute gutxienez 12 hilabeteko egonaldiak egin dituztela bestelako I+G zentroetan. Baldintza hori bete egin beharko da doktore titulua lortu ondoren eta 2019ko urtarrilaren 29 baino lehen.
- d. Eskaririk aurkeztu ez izana 2018ko "Ramón y Cajal" deialdian.
- e. Lehenago "Ramón y Cajal" edo "Juan de la Cierva-Incorporación" laguntza bat jaso ez izana, kontuan hartu gabe ikertzailea I+G zentroan hasi den ala ez.
- f. "Juan de la Cierva-Formación"ren laguntza jaso ez izana, urtebetez baliatu dutenak izan ezik. Epe hori kontabilizatzeko, kontuan hartuko da I+G zentroan egiaz hasi deneko datatik 2019ko ekainaren 1era arte, eta kontabilitate horretatik kanpo geldituko dira kontratu etenaldiak.

### **UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:**

Tutoreek egiaztatu beharko dute UPV/EHUrekiko lotura funtzional edo kontratu bidezkoa dutela eskaera aurkeztu den unetik eta laguntzak iraunen dituen bi urteetan.

Tutoreak, modalitate honetan, eskari bakarrean ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete zean, bi eskarieratik kanpo geldituko da.

#### **GARRANTZITSUA:**

IAEk **ez** du balidatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

### **Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:**

**2019ko urtarilaren 15tik urtarrilaren 29ko 15:00ak arte.**

#### **GARRANTZITSUA:**

Hautagaiak berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balidatzeko, **2019ko otsailaren 5a arte**, hain zuzen ere.

### **Hautagaiak aurkeztu beharreko eskaera:**

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da eskatzaileen erregistro bateratuaren (RUS) ikertzaileen erregistroaren atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren (aurrerantzean MINECO) webgunean kontsulta daitezke ohiko galderak.

### **UPV/EHUko TRAMITEA:**

UPV/EHUUn adskribatu gura duten hautagaiak dokumentazio hau igorri beharko dute **2019ko urtarrilaren 29a arte (hori ere barne)** [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVNa](#)
- c. NANaren fotokopia
- d. Doktore tituluaren fotokopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen erudian
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Azken bost urteko ikerketaren historiala

IAEk **ez** ditu balidatuko epetik kanpo igorritako dokumentuak.

#### **GARRANTZITSUA:**

Bestalde, eskaera egiteko formularioa jatorrizko sinadurarekin bidali beharko dute **PAPER EUSKARRIAN** posta zertifikatuaren bidez edo barruko postaz helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)  
Errektoregoaren eraikina  
Sarriena auzoa, z/g  
48.940 Leioa (Bizkaia)

**MINECOko kontaktua:**

Eskatzaileek MINECOri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

[http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta\\_ayudas](http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta_ayudas)

**UPV/EHUko kontaktua:**

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva-Incorporación" adierazita.

**Informazio gehiago:**

[Esteka](#)